

2022ko erakusketa-programa

Lehen seihilekoaren aurrerapena

- Programa hau Museoaren XX. urteurrenaren ospakizunen barruan kokatzen da.
- Praktika artistikoa eta pedagogia esperimentalak gurutzatzen diren proiektuen berrirakurketa historikoek jarraitu egingo dute 2022ko erakusketa-lerroetan, kultura-programan eta tesi-proiektuetan.
- Programak testuinguru eta hizkuntza batzuen eta besteen arteko elkarrizketak proposatzen ditu, Erlea Maneros Zabala, Anna Daucikova eta Nestor Sanmiguel Diest artistei eskainitako erakusketetan oinarrituta.
- Jorge Oteiza Fundazio Museoarekiko eta Reina Sofia Arte Zentroko Museo Nazionalarekiko lankidetzak sendotuko da.
- Erlea Maneros Zabala, Anna Daucikova eta Néstor Sanmiguel Diest artistei eskainitako erakusketetan oinarrituta, elkarrizketak proposatzen ditu programak nazioarteko testuinguruarekin eta hizkuntzen aniztasunarekin.
- Museoak programa parekide bat garatzeko zeharkako konpromisoari eusten dio.

Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoak, Artium Museoak, bere **erakusketa-programa** aurkeztu du **2022ko** lehen seihilekorako, urte horretan erakundearen irekieraren **20. urteurrena** ospatuko baita.

2022ko lehen seihilekoko programa *Pentsatzeko leku bat. Arte-eskola eta -praktika esperimentalak Euskal Herrian, 1957-1979* erakusketarekin inauguratuko da. Erakusketa horrek hainbat hezkuntza-proiektu berreskuratu ditu, proposatutako aldiaren prestakuntza eta hazkunde kultural eta intelektuala topaguneak sortzeko helburuarekin. Askotariko proposamen multzoa da, eta izendatzaile komuna ez da hezkuntza arautuari edo ofizialari jarraitzea, baizik eta aktibatutako «pentsatzeko gune» bakoitza aukera-espazio bihurtzen dela adieraztea.

Hezkuntza-proiektu esperimentalen eta praktika artistikoaren arteko harremanak dira erakundearen lan-ildo nagusietako bat. Erakusketa **Artium Museoaren eta Jorge Oteiza Fundazioaren arteko lankidetzaren** emaitza da.

Apirilean, bi bakarkako erakusketa inauguratuko dira, bata Erlea Maneros Zabalarari (Bilbo, 1977) eskainia, artistak azken urteetan garatutako hainbat lan bilduko dituen, eta bestea Anna Daučíková (Bratislava, 1950) artistari eskainia, duela gutxi ekoizpena eta lan historikoak harremanetan jarriko dituen. Estatuan artista eslovakiarrari eskainitako lehen bakarkako erakusketa da hau.

Ekainean, museoak **Nestor Sanmiguel Diest**-en (Zaragoza, 1949) *La peripecia del autómatas* erakusketa aurkeztuko du, artistak 1980ko hamarkadan hasi eta gaur egunera arte egin duen ibilbidea.

Proiektua bi egoitzatan egongo da aldi berean: **Madrilgo Velázquez Jauregi-Reina Sofia Museoa eta Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa, Vitoria-Gasteizen**. Proiektua **bi erakundearen arteko lankidetzatik** sortu da.

Zinemak, mugimendudun irudiak eta hark arte garaikidearen hizkuntzekin duen loturak jarraitu egingo dute 2022ko lehen seihilekoko programan. **Z aretoan**, hizkuntza zinematografikoen eta ikusizko arteen arteko gurutzaketei eskainitako zikloan, arlo horietan garrantzitsuak diren artista eta zinemagileak izango dira: **Aura Satz** (1974), **Ainara Elgoibar** (1975), **Ephraim Asili** (1979) eta **Edurne Rubio** (1974).

Ondarea ikertu eta zabaltzeari dagokionez, museoak bere funts museografikoak berrantolatzen jarraituko du, bai eta bere bilduman sartutako artelan eta artista berrien erakusketa-zikloarekin ere. *Testuinguruak, bilduma batetik abiatuta* otsailan hasiko da, **Ion Munduater**en (Irun, 1969) proiektu batekin.

Pentsatzeko leku bat. Arte-eskola eta -praktika esperimentalrak Euskal Herrian, 1957-1979

2022.01.21

Komisarioak: Sergio Rubira, Mikel Onandia eta Rocío Robles Tardío

Erakusketa hau Artium Museoaren eta Jorge Oteiza Fundazio Museoaren arteko lankidetzaren emaitza da.

Jorge Oteizak Quousque Tandem...! saiakeran (1963) argitaratutako asmo batetik abiatuta—«Guk ezin dugu ikerketaz hitz egin, ez baitugu ez elkartzeko tokirik, ezta pentsatzera biltzeko leku simple bat ere»—, Euskal Herriko jendearen hazkunde soziopolitiko, kultural eta intelektuala ahalbidetuko duten topaguneak sortzeko egindako dei hori da erakusketaren gaia. Erakusketak hezitze asmoa duten proiektu batzuk berreskuratu eta bildu ditu, taldekoak zein bakarkakoak, 1957tik 1979ra bitartean garatuak, Oteizak aipatutako premiaren argudio bera dutenak.

Aztertutako denbora-tartea hainbat ekimenek eta programek Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo bat egiten duten urtean hasten da, eta bat dator Jorge Oteizak bere esperimendazio eskultorikoaren prozesua utzi eta artistaren eginkizun sozial eta politikoari buruzko hausnarketari (1957-1959) ekin zion unearekin. Eta luzatu, Arte Ederretako Eskolak Fakultate gisa etapa berri bat hasi zuen urtera arte luzatzen da, aldaketa horretan faktore nominalak haren egituraren, programaren, ekipamenduen eta irakaskuntzaren berrikuntzaren sakoneko eraldaketaren promesa jasotzen duela. Bi data horien artean, proposamen heterogeneoak aurkezten dira beren enuntziatu eta artikulazio-moduetan, euskal gizartea berritzeko eta berreraikitze prozesuek markatutako urte batzuetan garatuak, eta horien izendatzaile komuna hezkuntza arautu edo ofizial bat ez egitea da, eta horrekin adierazten da aktibatutako «pentsatzeko gune» bakoitza aukera-espazio bihurtu zela.



Mikel Mendizabal, Errenteriako Ikastolako ikaslea, adierazpen plastikoko ariketa bat egiten, 1980 inguruan. Mikel Mendizabalen adeitasunez

Erlea Maneros Zabala

Apirilaren 8tik irailaren 30era
Komisarioa: Beatriz Herráez

Artistak azken urteotan ekoiztutako hiru lan multzo biltzen ditu erakusketa honek: *Exercises on Abstraction IV* (2018), hainbat irudi sail biltzen dituen lan bat, artistak finkatutako protokoloak eta sistemak ezartzetik abiatutako marmoleztatzetarako teknikak eta patroia eta forma geometrikoak gogorarazten dituen, *Promptbook* (2016), MNCARSen egin zuen erakusketaren testuinguruan aurkeztua, eta Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoko aurkezpen honetarako berrikusi dena eta *The Voice of the Valley*, (2017), Artistak Kaliforniako Mojave basamortuan duen estudioan egindako lana jasotzen duen filma. Artista museoan arituko da lanean 2022ko urtarrilean hasi eta apirilean proiektua inauguratu arte. Erakusketa honen testuinguruan argitaratuko da artistaren lanari eskainitako lehen monografia, Miren Jaio historialari eta kritikariak zuzendurik.

Maneros Zabalak (Bilbo, 1977) BFA lortu zuen Glasgow School of Art-en 2002an. Ondoren, Kaliforniara joan zen 2003an CalArts-en MFA ikastera. Bakarkako erakusketak egin ditu San Telmo Museoan, Reina Sofia Arte Zentroko Museo Nazionalean (2016), Eco Mexico DF Museoan edo Bilboko Guggenheim Museoan, eta talde-erakusketatan parte hartu du Ballroom Marfa-n, Texasen, CA2M Centro de Arte Dos de Mayon, Madrilan, Chicagoko Unibertsitatean eta Kadist Art Foundation-en, Parisen.



Voice of the Valley (2017) Fotogramak

Anna Daučíková

Del 8 de abril al 30 de septiembre de 2022
En colaboración con Zbynek Baladran

Hau da **Anna Daučíková** artistaren lanari Espainiako erakunde batean eskainitako lehen erakusketa. Erakusketa honetan hainbat garaitako argazkiak, bideoak eta margolanak bildu dira, Daučíková berrantolatu dituenak, irakurketa eta elkarketa berriak sortuz. Ildo horretan, Daučíková Zbynek Baladran —era berean artista— gonbidatu du pieza horiek berrantolatzera, museoan aurkezteko.

Daučíková (1950) 1978an Bratislavako Arte Ederren Akademiako Arkitekturako Beira Departamentuan graduatu zen. Handik gutxira Moskura joan zen eta bertan bizi izan zen eta isolamendu erlatiboan lan egin zuen 1991 arte. Garai horri (1980ko hamarkadaren



amaierari) zor zaio haren margolaritzarekiko praktika zabala eta argazkilaritzarekiko interesa, pentsamendu feministarekin bat egin izanak eraginda. 1990eko hamarkadaren hasieran Bratislavara itzuli zenean, Eslovakiako emakume intelektual talde batek zuzendutako ASPEKT aldizkari feministaren argitalpenean parte hartu zuen. Haren jardun artistikoa estudioko lanetik performancearen esparrura aldatu zen, zabalkunde handia izan baitzuen laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdean Eslovakiako eszena artistikoan.

Artearen esparruan egin zuen lanaz gainera, emakumeen eta LTGB kolektiboaren eskubideen aldeko hainbat proiekturen sortzaileetako bat izan zen Eslovakian, eta aktibista ere bai, laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera. Haren ibilbide akademikoan aipatu beharra dago irakasle gisa Bratislavako Arte Ederren eta Diseinuaren Akademiaren (1999-2012) eta Pragako Arte Ederren Akademiaren (2012-2019) egin zuen lana. 2018an Schering Stiftung saria jaso zuen. Haren lana nazioarteko testuinguruan luze eta zabal erakutsi da, besteak beste Kasselgo dokumentan, Kieveko Biurtekoan edo Jakartako Biurtekoan parte hartu baitu.

La peripecia del autómeta. Néstor Sanmiguel Diest

Ekainaren 24tik urriaren 30era

Komisarioa: Beatriz Herráez

Erakusketa hau Madrilgo Velázquez Jauregi-Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofiarekin (MNCARS) lankidetzan egingo da (ekainaren 2tik aurrera)



En la penumbra de tu corazón. 8-9-1994, 1994. 200 x 175 cm.

Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa, Artium Museoa Bilduma

La peripecia del autómeta, Néstor Sanmiguel Diest (Zaragoza, 1949) artistari eskainitako erakusketa da, eta Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofiarekin elkarlanean antolatuta da. Erakusketa bi egoitzatan egongo da aldi berean: Retiro Parkeko Velázquez Jauregian (ekainaren 2an inauguratuko da) eta Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa (3 aste geroago irekiko da). 1980ko hamarkadaren amaieran lanean hasi zenetik gaur egunera arte izan duen ekoizpen artistiko oparoa ezagutzeko aukera emango du erakusketak. Bertan, ibilbide bat marrazten da Sanmiguel Diesten lanean zehar, irudiaren eta testuaren arteko harremanak aztertuz. Ekoizpen horretan, erregistro piktorikoak eta arau eta zeinu grafikoak gurutzatzen dira, eta etengabeko kezka gisa agertzen dira lana eta ekoizpen-sistemak.

Z aretoa

Komisarioa: Garbiñe Ortega

Aura Satz (otsailaren 4tik martxoaren 27ra), **Ainara Elgoibar** (apirilaren 8tik maiatzaren 29ra), **Ephraim Asili** (ekainaren 3tik uztailaren 17ra) eta **Edurne Rubio** (uztailaren 15etik irailaren 18ra).



Z aretoa izeneko programa 2021ean hasi zen, eta 2022an jarraipena izango du, erakusketa aretoetan hari eskainitako gunean. Proiektuak ikusleei gaur egungo egile-komunitate bat erakusten die, lengoaia zinematografikoaren aukerak aztertzea ahalbidetuko dieten hainbat ikuspegitatik kontatzeko interesa duena, diziplina hori historikoki kategorizatzen duten generoak zalantzan jarritz.

Aura Satz (Bartzelona, 1974)

Zinema, soinua, performancea eta eskultura uztartzen ditu Satz-ek bere lanean, eta ahotsarekin egiten du lan. Satzek hainbat museo eta erakundetan egin ditu performanceak eta aurkeztu du bere lana: Tate Modern (2012), BFI Southbank (2012), New York Film Festival (2013), Tate Britain (2014), Whitechapel Gallery (2016), NTT InterCommunication Center, Tokyo (2017), SFMOMA, San Francisco (2017/18/19), Rotterdam Film Festival (2013-20)

Ainara Elgoibar (Bilbo, 1975)

Haren ekoizpena ikus-entzunezko formatuan garatu da batez ere, ekoizpen eta lan prozesuak ikertzen diren proiektuetan. Fundació Tàpies, La Capella eta Macba erakundeetan egin ditu erakusketak. 2013an Tractora Koop. E. sortu zuen, artisten enpresa kooperatiboa eta ekoizpen artistikoko plataforma. Gaur egun, Bilboko Atoi espazioaren zuzendarikidea da.

Ephraim Asili (AEB, 1979)

Zinemagile, artista, DJ eta irakaslea, Afrikako diasporari buruz hausnartzen du, esate The Diaspora Suite (2017) eta The inheritance (2020) lanetan. Sari garrantzitsuak jaso ditu New Yorkeko Zinemaldian, Torontoko Nazioarteko Zinemaldian, Rotterdango Nazioarteko Zinema Jaialdian eta Berlinalen.

Edurne Rubio-k (1974) performancearen, zinemaren, arkitekturaren eta espazio publikoaren esparruetan lan egiten du. Haren lana dokumentaletik eta antropologiatik hurbil dago, eta elkarrizketak, artxiboko irudiak eta ahozko komunikazioari buruzko ikerketak erabiltzen ditu. Jaialdi eta egokiera garrantzitsuetan aurkeztu ditu bere ekoizpenak, esate baterako Sao Pauloko 34. Bienalean (2021) eta Parisko Chantiers d'Europe Jaialdian (2022).

Testuinguruak bilduma batetik abiatuta

Testuinguruak bilduma batetik abiatuta izeneko erakusketa-zikloaren xedea duela gutxi Bilduman sartu diren artisten ekoizpena ezagutaraztea da. Erakusketa-proiektu horietan museoaren funtsetan sartu berriak diren lanak artista horien beren beste ekoizpen, artxibo eta dokumentu batzuekin jartzen dira harremanetan.

Cuerpos por un momento. Ion Munduate

Otsailaren 5etik aurrera

Cuerpos por un momento-n jasotako lanek marrazkiak eta oharrak dituzte elkarrekin, egikaritzearen sorburu gisa, eta artistaren ibilbideko hainbat unetan egindako bideoak dira. Prozesu bakoitzaren hasiera, performance edo bideo bakoitzarena, marrazki batekin hasi eta hainbat formatutan garatzen da. Bertan, funtsezkoa da gorputzetik, testutik eta espaziotik abiatuta lan egitea. Munduate (Donostia, 1969), dantza-performancean hezia dago. Bere lanetan bideoa, instalazioak eta performancea erabiltzen ditu. Mugatxoan-en zuzendarikidea izan da 1998 eta 2012 bitartean.



Boj de Largo, 2000